

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Josu Zabala Ajuriagerra

*Gasteiz, Araba
(1954)*

Aurkibidea



Biografia



Otxandioko Mekoleta auzoan jaioa, guraso biak Otxandiokoak zituen. Bost senide ziren (hiru neska eta bi mutil). Josuk -Jesus Maria, nortasun agirian- 2 urte zituenean familia Gasteizera joan zen bizitzera. Esnea partitzeko negozioa jarri zuten bertan. San Jose fraide-ikastetxean (orain San Viator) ikasi zuen 17 urterarte. Ondoren Magisteritza ikasketak egin zituen, eta irakasle gisa jardun zuen hainbat tokitan. 11 urterekin trikitia ikasten hasi zen, eta gazte-gaztetatik murgildu zen Gasteizko euskal giroan eta musika munduan. Baita militantzia politikoan ere: LKI taldean ibili zen. Baxu jotzailea eta konpositorea, Hertzainak musika taldeko sortzaileetako bat izan zen. Taldearen sorreraren eta ibilbidearen berri eman zigun [Gasteizko Ahotsak](#) proiekturako egin genion elkarrizketan. Josu ez da gasteiztarra sentitzen, Mekoletakoa baizik, eta bertan bizi da.

Zintak

GAS-030

- **Proiektua:** Gasteizko Euskararen Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2019-05-22
- **Iraupena:** 80 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

GAS-031

- **Proiektua:** Gasteizko Euskararen Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2019-05-22
- **Iraupena:** 91 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Bi urterekin Mekoletatik (Otxandio) Gasteizera bizitzera

- **Erref:** GAS-030/002
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:00:50. **Bukatu:** 00:03:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Otxandioko Mekoleta auzoan jaioa. 2 urte zituenean familia Gasteizera joan zen bizitzera. Legutioko urtegia egin zutenean hartu zuten erabakia. Aitak esnea saltzen zuen Gasteizen. Hiru arreba eta anai bi ziren; zaharrenak Venezuelara joan ziren.

2. Umetako Gasteiz, oraingoa baino askoz txikiagoa

- **Erref:** GAS-030/004
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:03:34. **Bukatu:** 00:05:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Umetako Gasteiz nolakoa zen kontatzen du: landa-eremua gertu zuten, hiria askoz txikiagoa zelako orduan. Gurasoek denda txiki bat zuten, esnea saltzeko. Udan Mekoletara joaten zen.

3. Gasteizko euskaldunen tabernak, umea zenean

- **Erref:** GAS-030/005
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:05:35. **Bukatu:** 00:09:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Euskara » Euskararen egoera
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Amak ez zekien erdaraz, gaizki moldatzen zen. Otxandioko jendea ibiltzen zen lekuetan mugitzen ziren gurasoak. Otxandiano taberna, Morga-ola jatetxea, Albeniz taberna, Bar España...

4. "Desberdina" sentitzen zen, Gasteizen euskalduna izateagatik

- **Erref:** GAS-030/006

- **Iraupena:** 0:04:23. **Hasi:** 00:09:02. **Bukatu:** 00:13:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

"Ezberdinak" izatearen sentsazioa izan zuen beti, bertakoa ez izatearena. Mekoletakoa sentitzen da. Amari erdaraz egiteko esaten zien aitzak, ikas zezan. 60ko hamarkadan hasi ziren mezak euskaraz ematen, eta hara joaten ziren gurasoak. Eskola erdaraz zen. Ez zeukan euskaraz norekin egin, bere adineko umerik, eta asko galdu zuen euskara.

5. Umetako jolasak eta entretenimenduak

- **Erref:** GAS-030/007
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:13:25. **Bukatu:** 00:14:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Kalean hazitakoa da, bere belaunaldiko denak bezala. Etxolak egiten zituzten, kalean jolastu... borroka egiten zuten beste ume batzuen kontra.

6. Eskolan onartu ez, erdaraz ez zelako ondo moldatzen

- **Erref:** GAS-030/008
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:14:40. **Bukatu:** 00:18:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Eskola-garaia traumatikoa izan zen. Ez zekien ondo erdaraz, eta Jesus Obrero ikastetxean ez zuten onartu. San Jose ikastetxe pribatura eraman zuten orduan (gero San Viator), fraideekin. Etxean disgustu handia izan zuten.

7. San Jose ikastetxean, fraideekin

- **Erref:** GAS-030/009
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:18:06. **Bukatu:** 00:20:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

San Jose ikastetxean ere desberdina sentitzen zen, gaztelania menderatuta

ere. Fraideek zigorrak jartzen zituzten, eta ez zuen ondo pasatu. 17 urterarte ibili zen han. Irakasle ikasketak egin zituen gero.

8. Gasteizko kultur giroa, 16-17 urte zituenean

- **Erref:** GAS-030/010
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:20:20. **Bukatu:** 00:23:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

<p>16-17 urte zitueneko kultur giroa. Euskal giroa bilatzen zuen beti, eta giro abertzalean murgildu zen: mendira joan, Kutxilleria kalean euskaraz kantatu... Frankismo amaieran Manuel Iradier elkartearen erreferentzia bat. Dantza taldeak. Atxiloketa asko izaten ziren.</p>

9. Musikaren munduan murgilduta, gaztetxotatik

- **Erref:** GAS-030/011
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:23:48. **Bukatu:** 00:26:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Amaren erabakiz, 11 urterekin soina jotzen ikastera bidali zuten, Cecilio Lopez de Luzuriaga irakaslearekin. Musikaren mundua zen berari gustatzen zitzaiona. Coro Arabakoek euskaraz kantatzen zuten; Amets taldea berritzailea izan zen sasoi hartan.</p>

10. Euskararen aldeko borroka: lehen euskarazko klaseak

- **Erref:** GAS-030/012
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:26:56. **Bukatu:** 00:28:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen historia
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskarazko klase batzuk ere hasi ziren JOC-en, Patxi Bisquert irakaslearekin (Patxi Manterola). Bera ere ibili zen, baina ez zuen iraun: atxiloketak izan ziren. Politika eta euskara nahastuta zeuden.

11. Lantzale musika-taldean, soinua jotzen

- **Erref:** GAS-030/013
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:28:25. **Bukatu:** 00:30:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Lantzale dantza-taldeak adar musikala ere bazuen. Irakasle ikasketak egiten zebilela, agustindar izandako gazte batzuk ezagutu zituen: Juanjo Uranga, Pako Izagirre, Xabier Madina, Karmen Txintxurreta... Lantzale taldean Jeni Prietok kantatzen zuen. Soinua jotzen hasi zen bertan.

12. Quinteto Egia taldean, Patxi Villamorrek batera

- **Erref:** GAS-030/014
- **Iraupena:** 0:05:13. **Hasi:** 00:30:45. **Bukatu:** 00:35:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

<p>Patxi Villamor ezagutu zuen Irakasle Ikasketak egiten ari zela. Gorka Knöl;r musikaria ere bai, Ez Dok Amairukoa. Kantu-lehiaketa batera aurkeztu zen, euskaraz kantatzen. Villamorrek eta beste batzuekin (bat Zaramaga auzokoa: hara euskaldun asko joan zen bizitzera, lantegi asko ipini zituztelako) Quinteto Egia sortu zuten, horretarako. Ez zuen asko iraun. Patxi Villamorrek bere kabuz jarraitu zuen kantuan, eta haren diskoan parte hartu zuen.</p>

13. "Baga Biga Higa" sentikaria, Gasteizen

- **Erref:** GAS-030/015
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:35:58. **Bukatu:** 00:38:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Irakasle Ikasketak egiten ari zen sasoian, Teatro Floridara Ez Dok Amairu joan zen, "Baga Biga Higa" emanaldiarekin. Txundituta geratu zen. Politikoki troskismoarekin lerrokatu zen, LKI eta eremu horietan.

14. Arrasateko ikastolatik Burgosera, soldadutza egitera

- **Erref:** GAS-030/016
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:38:26. **Bukatu:** 00:41:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Irakasle ikasketak bukatuta, Arrasateko ikastolan izan zuen lehen lana. Atxilotu egin zuten, eta kartzelaldiaren ostean, soldadu bidali zuten, Burgosera. Han ezkerreko militanteen eskuetan zeuden koartelak. Harrera-luntxa egin zieten, eta "banda"-koa izan zen hasieratik.

15. Soldadutzan, komite antifrankistan

- **Erref:** GAS-030/017
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:41:37. **Bukatu:** 00:44:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Soldadu Komitean egon zen, fitxatutako beste antifrankista guztiekin batera. Franco hil zenean, soldadutza egiten zegoen. Martxoaren 3ko sarraskia gertatu zenean ere bai.

16. Soldadutzatik bueltan, berriz irakasle lanetan

- **Erref:** GAS-030/018
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:44:29. **Bukatu:** 00:47:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Soldadutzatik bueltan, hezkuntzan hasi zen berriz: Gernikan. Euskara ematen zuen. Hainbat lekutan ibili zen gero, Gasteizen besteak beste. Funtzionarioa zen, eta eszedentzia hartzen saiatu zen, Ertzainak taldearekin hasita zeudelako. Ez zioten utzi, eta lana utzi zuen.

17. Aktibismo politikotik aktibismo musikalera

- **Erref:** GAS-030/019
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:47:08. **Bukatu:** 00:48:47

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

Franco hil zenean, desenkantua iritsi zen, "trantsizio faltsua"... ustezko demokrazia horretan, ezkerak indarra galdu zuela dio. Ekintzarako aukerak mugatu egin ziren, eta aktibismo musikala egitea erabaki zuen.

18. Xabier Amurizarekin, bertso musikatuekin herriz herri

- **Erref:** GAS-030/020
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:48:47. **Bukatu:** 00:51:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Gernikan zegoela, Xabier Amurizarekin kolaboratzen hasi zen, lehenengo bertso musikatuaren proiektuan. Hiru musikari ibiltzen ziren Amurizarekin herriz herri, ikuskizun harekin. Bat-bateko bertsoak eta aurrez prestatutakoak nahasten ziren.

19. Kantautoreekin eta Ruper Ordorikarekin

- **Erref:** GAS-030/021
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:51:13. **Bukatu:** 00:52:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

1980an Patxi Villamorrekin ere ibili zen, kontzertu batzuetan, eta Gontzal Mendibilekin ere bai... Eta Ruper Ordorikak bere diskorako fitxatu zuen.

20. Hertzainak taldearen hasiera: troskista taldea

- **Erref:** GAS-030/022
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:52:20. **Bukatu:** 00:54:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

<p>Xabier Montoiarekin Hertzainak proiektua sortu zuen. Militantismo

ezagutzen zuten elkar, troskismotik. Hasieran batu zirenak ez ziren musikari onak, eta jende trebatuagoa topatzen hasi ziren.</p>

21. Gasteizko hazkundera eta euskararen prestigioa

- **Erref:** GAS-030/024
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:55:20. **Bukatu:** 00:57:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Euskara » Euskararen historia
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gasteiz hazkunde azkarrena izan zuen Europako hiria izan zen. 40.000 biztanletik 100.000ra igaro zen 20 urtean. Giroa ere aldatu egin zen. Euskararen prestigioa berreskuratzeko gogo pizten da gizartean.

22. 80ko hamarkadan, gazte alternatibo asko Gasteizen

- **Erref:** GAS-030/025
- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 00:57:10. **Bukatu:** 01:01:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Aisia » Kultura » Musika
- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Taberna giroa » Gazteendako lekuak

Laburpena:

<p>80ko hamarkadan, euskara berreskuratzeko gogo piztu zen Gasteizen, eta Hertzainak rock taldea euskaraz egiteko ideia ere testuinguru horretan sortu zen. Gazte asko zeuden, alternatiba gosearekin: gaztetxea sortu zen, tabernetan rock musika jartzen hasi ziren...</p>

23. Tabernetako erreferentzia musikalak

- **Erref:** GAS-030/026
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 01:01:06. **Bukatu:** 01:03:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Aisia » Kultura » Musika
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

<p>Gasteizen tabernetan entzuten zituzten musika-taldeei buruz hitz egiten du. Punkaren mugimendua 80ko hamarkadan iritsi zen.</p>

24. "Tribuen sorrera" ahalbidetzen zuen giroa musikala

- **Erref:** GAS-030/027

- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 01:03:26. **Bukatu:** 01:06:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Gazteendako lekuak
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

<p>Dirurik ez zutenez, batera entzuten zuten musika. Esperientzia konpartitua zen. "Tribuen" sorrera ahalbidetzen zuen horrek. Arazo kolektiboek erantzun kolektiboak ematen zizkieten (gaztetxea...). Aurreko militantismoak ere elkarlanera ohitu zituen. Gasteiz alternatiboa sortu zen.</p>

25. 80ko hamarkadan, fenomeno interesgarriak: fanzineak eta rock-taldeak eztanda

- **Erref:** GAS-030/028
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 01:06:53. **Bukatu:** 01:09:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Gazteendako lekuak
- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

<p>Fenomeno interesanteak sortu ziren: fanzineak, aldizkariak, musika-taldeak... 80ko hamarkada oso aberatsa izan zen. Punkak musika-taldeak sortzeko erraztasuna ematen zuen, ez zelako trebetasun handirik behar. Cicatriz taldea. Rockaren eztanda: La Polla, Zarama, Barrikada...</p>

26. Hertzainak musika-taldea sortzeko ideia

- **Erref:** GAS-030/030
- **Iraupena:** 0:04:54. **Hasi:** 01:09:31. **Bukatu:** 01:14:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Hertzainak sortzeko ideia nola sortu zen. Punka agertu zenean, amorrua adierazteko bide bat aurkitu zuten, musika aldetik egingarria. Londresera joan ziren, giroan murgiltzera. EAJri kantatu nahi zioten, eta euskaraz izan behar zuen. Lehen 'fan'-ak erdaldunak ziren. Taldea zergatik desagertu zen.

27. Xabier Montoia, euskara eta punka

- **Erref:** GAS-030/032
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 01:14:28. **Bukatu:** 01:16:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Punka perfektua zen beren taldearentzat. Xabier Montoiak horretarako ikasi zuen, punk talde batean kantatzeko. Sei hilabetean ikasi zuen. Patxi Villamorren kasua ere antzekoa izan zela dio.

28. Hertzainak taldearen izena

- **Erref:** GAS-030/033
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 01:16:36. **Bukatu:** 01:18:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

<p>Hertzainak taldearen izena nondik datorren azaltzen du. The Police talde ingelesa.</p>

29. Hertzainak taldearen lehen partaideak

- **Erref:** GAS-030/034
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:18:46. **Bukatu:** 01:20:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Hertzainak taldeko lehenengo partaideak. Lehen kontzertua. Delfo eta Kike.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com